

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **361/2020 Foru Agindua, azaroaren 11koa, alarma-egoera deklaratzearen ondorioz basurde-uxaldiak egiteko ezohiko neurriak ezartzen dituen**

Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak ezartzen du ezin dela bizi den udalerritik edo udalerrri mugakideetatik harantzago joan, eta zenbait salbuespen onartzen ditu, besteak beste, ezinbesteko kausagatik, premia egoeragatik edo behar bezala egiaztatutako antzeko beste edozein jarduerarengatik.

Arabaren, basurdearen batez besteko populazioa 4 eta 5 ale artekoa da km<sup>2</sup> bakoitzeko, 8.000 ale baino gehiagorekin. Populazioaren kontrola, batez ere, iraila eta otsaila bitartean egiten diren uxaldietan egiten da. Espeziea ez ehizatzeak esan nahi du populazioa ehuneko 100 inguru handituko dela denboraldi batean, eta, beraz, urte batean 2 km-ko 8 eta 10 ale artean egongo ginateke, "Arabako basurdeen populazioa kudeatzeko plana" azterlanean adierazten den bezala. Azterlan hori Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, [www.araba.eus](http://www.araba.eus).

2020ko apirilaren 14an, pandemiaren ondoriozko erabateko konfinamenduan, Nekazaritzako Ekoizpenaren Osasuneko zuzendari nagusiak gutun bat bidali zien autonomia erkidego guztiei, eta, bertan, basurde populazioa kontrolatzeko modurik onena ezartzeko eskatu zuen, kontuan hartuta COVID-19ari aurre egiteko prebentzio neurriak hartu beharra zegoela.

2020ko azaroaren 3an, Nekazaritza Ministerioak autonomia erkidegoetako zuzendari nagusien bilera bat egin zuen, Espainian basurdeen populazioa kontrolatzeko estrategia nazionala azaltzeko. Espeziearen ehiza jarduera areagotzeko eskatzeaz gain, Estatuko autonomia erkidego bakoitzak kontrol plan bat egin behar du 2020ko abendurako. Ehiza eta Arrantza Atalean dago eskuragarri dokumentua.

Orduan baliagarri ziren eta baliagarri izaten jarraitzen duten arrazoiak honako hauek dira: animalia gaixotasunak zabaltzeko arriskua saihestea, batez ere Afrikako txerri izarria; gaixotasun zoonotikoak (tuberkulosia, bruzelosis...) hedatzeko arriskua saihestea; nekazaritza edo abeltzaintza ekoizpenetan kalteak saihestea; eta trafiko istripuak saihestea.

Testuinguru horretan, eta arestian adierazitakoa kontuan hartuta, ezinbestekoa da basurde-uxaketak egitea, Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak onartutako osasun-protokolo bat betetzen badute, ehiza-modalitate horretarako mugikortasun-murrizketak saihestuz; izan ere, populazio-kontrolaren eta txerri-izarria eta beste zoonosi batzuk izateko arriskuaren ondorioz, nekazaritzarako eta bide-segurtasunerako kalteak gerta litezke. Ehiza-mota horri edo ehiztarien parte-hartzeari eutsi ahal izango litzaioke, mugikortasuna murrizteagatik, eta, beraz, abenduaren 26ko 36/2020 Dekretuaren j) letran aurreikusitako salbuespenen barruan sartuko litzateke.

Ondorioz, nahitaezko txostenak ikusita, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. eta 98. artikuluetan gai horri buruz esleitutako funtzioen arabera, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b) .3 artikuluan ezarritakoarekin lotuta.

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Adieraztea basurdearen ehiza nahitaezko jarduera dela Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren 2. artikuluko J apartatuan finkatutakoaren arabera, egoera

epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2 delakoak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko, prebentzio neurri espezifikoak ezartzen dituen alarma egoera deklaratzearen esparruan.

Bigarrena. Basurdea ehizatzeo jarduera kolektibo guztietan bete beharko da I. eranskinean ezarritako osasun protokoloa.

Hirugarrena. Ehiztari baimenduek aldean eraman beharko dute Arabako Foru Aldundiko Ehiza eta Arrantza Atalak jaulkitako baimena.

Laugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeo errekurtsoa, hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru diputatuari. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorritik: Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 11

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**

## ERANSKINA

### **COVID-19AREN AURKAKO SEGURTASUN ETA HIGIENE PROTOKOLOA EHIZA JARDUERETAN**

#### **OROKORRAK (EHIZA MODALITATE GUZTIAK)**

Beste pertsona batzuekiko 1,5-2 metroko segurtasun distantzia gordeko da eta maskarak jantzi (etxe berean bizi diren pertsonak izan ezik).

Eskuak maiz desinfektatuko dira eta gel hidroalkoholikoa erabili (bereziki, duela gutxi beste pertsona batzuk ibili ahal izan diren lekuetan).

Ehizaren antolatzaileak ez badago, horretarako arduraduna izendatuko da.

Parte hartzaile guztien telefono zenbakia eta helbidea emango dizkiote antolatzaileari edo, bestela, izendatutako arduradunari.

Ehizaldian zehar eta ehizaldiaren ondorengo 5 egunetan COVID-19arekin bateragarria den sintomatologiaren izanez gero, antolatzaileari edo horretarako izendatutako arduradunari berhala jakinarazteko betebeharra dago.

Antolatzaileak edo horretarako izendatutako arduradunak osasun agintariei jakinaraziko die jardueran parte hartu dutenak kutsatu ahal izan direneko informazio guztia eta ehizaldira joan diren gainerako pertsonen datuak (telefonoak eta helbideak).

Ez dira ibilgailuak partekatuko ahal dela, etxe berean bizi diren pertsonekin izan ezik eta, hala behar izanez gero, maskarak jantzi behar dira ibilbidean zehar.

Ez da jango ez edango beste parte hartzaile batzuen aurrean ahal den neurrian.

Ez dira partekatuko ehiza tresnarik edo bestelako objekturik, ahal den neurrian.

Jarduera ehiza postuetan egiten bada, gehienez ere 2 pertsona egon ahal dira postu bakoitzean eta maskarak jantzita, bizikidetzat talde berekoak izan ezik (etxebizitza berean bizi badira).

Ez dira pertsonak pilatuko ez alferrikako bilerak egingo, baina, egin behar izanez gero, ahalik eta denbora gutxienean egongo da bertan, maskarak eta segurtasun distantzia jarrita.

#### BEREZIAK

##### (EHIZA MODALITATEAK, 6 PERTSONA BAINO GEHIAGO BERTARATUTA)

Ehizaren antolatzailearen erantzukizunpeko adierazpena beharko da, ehizarako baimen eskaerarekin batera bidalia. Bertan, konpromisoa hartzen du COVID-19aren aurkako osasun prebentzioaren arloan eskumena duten agintariek hartutako arauak eta gomendioak betetzeko; ehizaldian parte hartzen duten guztiei horren berri emango die.

Ehizaren antolatzaileak osasun agintariei jakinarazi behar die ehizaldi batean parte hartzen duen edozeinek atzeman edo jakinarazitako edozein sintomatologia, ehizaldia egiten denetik 5 egun igaro bitartean.

Ehizaldien antolatzaileek ez dute zozketarik egingo, eta, egin behar izatekotan, aire zabalean egingo dira beti, 1-5 eta 2 metro bitarteko segurtasun tartearekin eta maskarekin, eta gehienez ere sei pertsona batuko dira aldi berean.

Postuetan gehienez 2 pertsona egongo dira eta maskarak jantzita, salbu eta bizikidetzat talde berekoak badira (etxebizitza berean bizi badira).

Ahal den neurrian, ez dira joango postu desberdinetako pertsonak ibilgailu berean postuetara, eta, beharrezkoa izanez gero, beti maskarak jantzita.

Ez da bazkaririk, gosaririk, elkarretaratzerik eta alferrikako bilerarik egingo.

Bertaratutakoek (ehiztariak, taxidermistak, artzainak, etab.) ehizaren antolatzaileari telefono zenbakia eta helbidea jakinarazi behar dizkiote.

Haragien Batzarrean behar-beharrezkoak diren gutxieneko pertsonak batuko dira (antolatzailea, albaitariak, taxidermistak, harakinak, laguntzaileak eta piezaren baten ehiztariak), eta inola ere ez 5 baino gehiago aldi berean. Ehiztariak era mailakatuan sartuko dira, antolatzaileek ezarritako moduaren arabera.

#### DEBEKUAK

Ekitaldira joatea COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak edukiz gero eta positiboren batekin kontaktu estua izan bada, baita kutsatzearen emaitza positiboa eduki bada eta berrogeialdia gorde behar bada edo emaitza horren zain badago ere.